

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Aldaketak Eibarko Udaleko bi ofizial elektrikari lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko eta lan poltsa sortzeko deialdiaren oinarrietan.

2024ko azaroaren 12an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (218. zk.) Ofizial elektrikari 2 lanpostu betetzeko eta lan poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko apirilaren 11n, erabaki hau hartu du:

Lehena. Oinarri orokorretako epaimahai kalifikatzailean honako aldaketa hau egitea: «Beste udal bateko ofizial elektrizista» dioen lekuan, «Ofizial elektrizista» esan behar du.

Bigarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udalaren web orrian argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki hau sindikatuei jakinaraztea.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eibarko Udaleko Alkatzari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespina gertatu arte. Nolanahi ere, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Eibar, 2025eko apirilaren 11.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(3166)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Cambios en las bases de la convocatoria para la cobertura de dos plazas de oficial/a electricista por concurso-oposición y la creación de una bolsa de trabajo.

El 12 de noviembre de 2024 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 218) se publicaron las bases de la convocatoria para la cobertura de dos a plazas de oficial/a electricista como personal laboral fijo y la creación de una bolsa de trabajo.

En la Junta de Gobierno de 11 de abril de 2025 se ha adoptado el siguiente acuerdo:

Primero. Realizar el siguiente cambio en el tribunal calificador de las bases generales: donde dice «Un/a oficial/a electricista de otro Ayuntamiento», debe decir «Un/a oficial/a electricista».

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

Tercero. Notificar el presente acuerdo a los sindicatos.

Contra la presente resolución, se podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía del Ayuntamiento de Eibar, en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Eibar, a 11 de abril de 2025.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(3166)